

**KULTURA SAILA****Zk-2608**

239/1999 DEKRETUA, ekainaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Gazte Planaren Zuzendaritza Batzordearen funtzionamendu-erregimen eta osaketa-ri buruzkoa.

Gobernu Kontseiluak 1998ko maiatzaren 26ko bilkuran onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Gazte Planean erakunde-arteke izaera izango duen organo bat sortzea begiesten da, gazteriari buruzko politiken sustapenean eta garapenean euskal herri-administrazioen koordinaketa eta lankidetzat bultzatzeko asmotan.

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak hartarako egindako txostena aztertu ondoren, Dekretu honen bidez Gazte Planaren Zuzendaritza Batzordea sortzen da eta bere osaketa eta funtzioen zertzelada nagusiak xedatzen.

Ondorioz, Kultura sailburuaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Batzordeak 1999ko ekainaren 2an egindako bileran aztertu ondoren, hauxe

## XEDATU DUT:

**1. artikulua.**– Helburua, izaera eta adskripzioa.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Gazte Planaren Zuzendaritza Batzordea sortzen da, Dekretu honetan ezartzen diren osaketa, eginkizun eta gainontzeko xehetasunekin.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Gazte Planaren Zuzendaritza Batzordea organo kolegiatu gisa gauzatu da, erakunde-arteke ordezkariarekin, aipaturiko Planarekin zerikusia duten eginkizunak gara ditzan.

3.– Gazte Planaren Zuzendaritza Batzordea gazteria arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Sailari atxikita geratzen da.

**2. artikulua.**– Gazte Planaren Zuzendaritza Batzordearen eginkizunak.

Honako hauek dira Zuzendaritza Batzordearen eginkizunak:

- a) Gazte Plana koordinatu eta bultzatzea.
- b) Gazte Planean sartzen diren jardueren jarraipena eta ebaluaketa egitea.
- c) Gazte Planarekiko egokitzat jotzen diren aldakuntzak proposatzea.
- d) Gazte Planean inplikaturiko erakundeen arteko lankidetzat eta koordinaketarako moduak bideratzea.
- e) Euskadiko Gazteriaren Kontseiluarekin nahiz gazteriarekin harreman zuzena duten gizarte-agenteekin lankidetzarako bide iraunkorrak finkatzea.

**DEPARTAMENTO DE CULTURA****Nº-2608**

DECRETO 239/1999, de 2 de junio, de composición y régimen de funcionamiento de la Junta Rectora del Plan Joven de la Comunidad Autónoma Vasca.

En el Plan Joven de la Comunidad Autónoma Vasca, aprobado por el Consejo de Gobierno en su sesión del día 26 de mayo de 1998, se contempla la creación de un órgano de carácter interinstitucional al objeto de promover la coordinación y cooperación de las Administraciones Públicas Vascas en el impulso y desarrollo de las políticas en materia de juventud.

Una vez atendido el informe emitido al respecto por el Consejo de la Juventud de Euskadi, mediante el presente Decreto se crea la Junta Rectora del Plan Joven y se establece las líneas generales de su composición y funciones.

En su virtud, a propuesta de la Consejera de Cultura, y previa deliberación del Consejo de Gobierno en su reunión celebrada el día 2 de junio de 1999

## DISPONGO:

**Artículo 1.**– Objeto, naturaleza y adscripción.

1.– Se crea la Junta Rectora del Plan Joven de la Comunidad Autónoma Vasca, con la composición, funciones y demás extremos establecidos en el presente Decreto.

2.– La Junta Rectora del Plan Joven de la Comunidad Autónoma Vasca se crea como órgano colegiado con representación interinstitucional para el desarrollo de las funciones que le vengán atribuidas con relación a dicho Plan.

3.– La Junta Rectora del Plan Joven queda adscrita al Departamento del Gobierno Vasco competente en materia de juventud.

**Artículo 2.**– Funciones de la Junta Rectora del Plan Joven.

Son funciones de la Junta Rectora las siguientes:

- a) Coordinar e impulsar el desarrollo del Plan Joven.
- b) Efectuar el seguimiento y evaluación de las acciones incluidas en el Plan Joven.
- c) Proponer las modificaciones que se estimen oportunas respecto al Plan Joven.
- d) Establecer fórmulas de colaboración y coordinación entre los organismos implicados en el Plan Joven.
- e) Establecer cauces permanentes de colaboración con el Consejo de la Juventud de Euskadi y con los agentes sociales más directamente relacionados con la juventud.

f) Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren ekarpen eta txostenak nahiz gizartetik datozen proposamenak aztertze guneak izatea.

g) Gazteria arloan eskumena duen Sailari Gazte Planaren urteroko jarraipena aurkeztea, honek Arazo Ekonomikoetarako Batzorde Ordezkarira bidal dezan.

h) Gazteria arloan garrantzi txikiagokoak diren lurralde edo erakunde mailako planei buruzko argibideak ematea.

### 3. artikulua.- Batzordearen osaketa.

Gazte Planaren Zuzendaritza Batzordea 18 kidek osatuko dute gehienez. Hauek erakundeetako hiru mailetako (Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundi eta Udaletako) ordezkariek izango dira, ondorengo banaketa honekin:

- . Gazteria arloan eskumena duen sailburuordea, zeinari Lehendakaritza egokituko zaion.
- . Eusko Jaurlaritzako Gazteria arloko zuzendaria, idazkari-lanak egingo dituen ahots eta botoarekin.
- . Lan arloan eskumena duen sailburuordea.
- . Hezkuntza arloan eskumena duen sailburuordea.
- . Etxebizitza arloan eskumena duen sailburuordea.
- . Osasun arloan eskumena duen sailburuordea.
- . Kultura arloan eskumena duen sailburuordea.
- . Industria arloan eskumena duen sailburuordea.
- . Nekazaritza arloan eskumena duen sailburuordea.
- . Foru Aldundietako gazteria arloan eskumen zuzena daukan Foru diputatua edo, dagokion kasuan, administrazio-organoaren arduradun nagusia.
- . Hiru euskal hiriburuetakako Udal bakoitzean gazteria arloan eskumen zuzena daukan administrazio-organoaren arduradun nagusia.

Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkaritza handiena duen udal-elkarteak izendatutako beste hiru udal ordezkariek.

### 4. artikulua.- Funtzionamendu-araudia.

1.- Zuzendaritza Batzordeari dagokio bere araudia gauzatea nahiz aldatzea. Araudi hori gazteria arloan eskumena duen Saileko titularrak onartu beharko du.

f) Servir de foro de análisis tanto de las aportaciones e informes del Consejo de la Juventud de Euskadi como de las propuestas derivadas de la sociedad.

g) Presentar al Departamento competente en materia de juventud el informe anual de seguimiento del Plan Joven, que será remitido a la Comisión Delegada de Asuntos Económicos.

h) Informar planes territoriales o institucionales de menor alcance en materia de juventud.

### Artículo 3.- Composición de la Junta.

La Junta Rectora del Plan Joven estará compuesta por un máximo de 18 miembros representantes de los tres niveles institucionales (Gobierno Vasco, Diputaciones Forales y Ayuntamientos), según la siguiente distribución:

- . El/la Viceconsejero/a competente en materia de juventud, a quien corresponderá la Presidencia.
- . El/la Director/a de juventud del Gobierno Vasco, que ejercerá como secretario/a, con voz y voto.
- . El/la Viceconsejero/a competente en materia de trabajo.
- . El/la Viceconsejero/a competente en materia de educación.
- . El/la Viceconsejero/a competente en materia de vivienda.
- . El/la Viceconsejero/a competente en materia de sanidad.
- . El/la Viceconsejero/a competente en materia de cultura.
- . El/la Viceconsejero/a competente en materia de industria.
- . El/la Viceconsejero/a competente en materia de agricultura.
- . El/la Diputado/a o, en su caso, el/la máximo/a responsable del órgano administrativo con competencia directa en materia de juventud de cada una de las Diputaciones Forales.
- . El/la máximo/a responsable del órgano administrativo con competencia directa en materia de juventud de cada uno de los Ayuntamientos de las tres capitales vascas.

Otros/as tres representantes municipales designados/as por la asociación de municipios más representativa de la Comunidad Autónoma Vasca.

### Artículo 4.- Reglamento de funcionamiento.

1.- Corresponderá a la Junta Rectora la elaboración y modificación de su reglamento de funcionamiento, que deberá ser aprobado por el/la titular del Departamento competente en materia de juventud.

2.- Zuzendaritza Batzordean ordezkaturako erakundeen benetako proportzionaltasuna bermatzeko, hiru erakunde-mailen ordezkarien arteko oreka ziurtatuko duen mekanismorik aproposena ezarriko da funtzionamendu-araudian.

3.- Nolanahi ere, Gazte Planaren Zuzendaritza Batzordeak eztabaidatu beharreko gai guztietan Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak bere iritzia eman ahal izateko modua ere bermatuko da. Are gehiago, Erakunde horrek eskatuz gero, eztabaidetan Kontseiluaren ordezkari bat egotea ere aurreikusten da.

4.- Halaber, Zuzendaritza Batzordearen Lehendakariak honako hauek ere bil ditzake Batzordearen bilertara: gazteriarekin sektore-gaietan harremanak dituzten Herri Administrazioetako arduradunak eta gizartearen ordezkari adituak.

#### 5. artikulua.- Bilera-deialdiak.

Zuzendaritza Batzordea sei hilabetero elkartuko da, gutxienez. Halaber, Lehendakariak bere ekimenez deialdia egiten duenean, edota funtzionamendu-arudiak zehazten dituen kasuetan.

#### 6. artikulua.- Lan-taldeak eta Batzorde teknikoak.

1.- Zuzendaritza Batzordeak zenbait gai aztertu edo jorrazteko egokitzen jotzen diren lan-taldeak eta batzorde teknikoak era ditzake. Talde edo batzorde horietan Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak hartarako izendatzen dituen pertsonak parte hartuko dute erabat, Erakunde horrek aukera horri uko egiten ez badio behinik behin.

2.- Sortzen diren lan-taldeak eta batzorde teknikoak zuzendu eta koordinatzeko ahalmena izango du Zuzendaritza Batzordearen Lehendakariak.

3.- Lan-talde eta batzorde teknikoen funtzionamendurako gastuak gazteria arloan eskumena duen Saileko aurrekontu-kredituen kontura izango dira. Lan-talde eta batzorde teknikoetako kideek hartarako ezarritako diru-kopuruak eskura ditzakete, dieta eta kalte-ordain gisa; edonola ere, indarrean dagoen araudiak dioenaren arabera.

#### XEDAPEN GEHIGARRIA

**Bakarra.**- Baldin eta 3. artikuluan aipatzen diren Zuzendaritza Batzordeko kideren batek eskumena gai batean baino gehiagotan badauka, Batzordean duen partaidetza, zernahitarako, kide bakar moduan izango da.

2.- Al objeto de garantizar la efectiva proporcionalidad de las instituciones representadas en la Junta Rectora, en el Reglamento de funcionamiento se establecerá el mecanismo más adecuado para asegurar la ponderación en la representación de los tres niveles institucionales.

3.- En todo caso, se establecerá también el mecanismo que garantice el pronunciamiento del Consejo de la Juventud de Euskadi de cuantos asuntos hayan de ser debatidos por la Junta Rectora del Plan Joven, previendo incluso la presencia de una representación del Consejo en los debates que tal Organismo así lo solicite.

4.- Así mismo, el/la Presidente de la Junta Rectora podrá acordar la presencia en las reuniones de la Junta de responsables de las Administraciones Públicas implicadas en materias sectoriales relacionadas con la juventud y de representantes cualificados/as de la sociedad.

#### Artículo 5.- Convocatoria de reuniones.

La Junta Rectora se reunirá, cuando menos, una vez cada semestre, así como cuando sea convocada por su Presidente/a por propia iniciativa o en las circunstancias que fije el reglamento de funcionamiento.

#### Artículo 6.- Grupos de trabajo y Comisiones técnicas.

1.- La Junta Rectora podrá constituir aquellos grupos de trabajo y comisiones técnicas que se estimen oportunas para el estudio o tratamiento de materias concretas. En tales grupos o comisiones participarán plenamente las personas que al efecto sean designadas por el Consejo de la Juventud de Euskadi, salvo que tal Organismo renuncie a ello.

2.- El/la Presidente de la Junta Rectora tendrá la facultad de dirección y coordinación de los grupos de trabajo y comisiones técnicas que se creen.

3.- Los gastos de funcionamiento de los grupos de trabajo y comisiones técnicas serán con cargo a los créditos presupuestarios del Departamento competente en materia de juventud. Los miembros de los grupos de trabajo y comisiones técnicas podrán percibir, en concepto de dietas e indemnizaciones, aquellas cantidades que se establezcan, de acuerdo, en todo caso, con lo dispuesto en la normativa vigente.

#### DISPOSICIÓN ADICIONAL

**Única.**- En el caso de que alguno de los miembros de la Junta Rectora señalados en el Artículo 3 ostente la competencia en más de una materia, su participación en la Junta lo será, a todos los efectos, como un único miembro.

## AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.*– Araudi-garapena.

Gazteria arloan eskumena duen sailburuari ahalmena eskuratzen zaio, Dekretu honen garapen eta aplikazioarako beharrezkoak diren xedapen guztiak eman dituzan.

*Bigarrena.*– Indarrean sartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 1999ko ekainaren 2an.

Lehendakaria,  
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Kultura sailburua,  
M.ª CARMEN GARMENDIA LASA.

## Bestelako Xedapenak

### OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

#### Zk-2609

AGINDUA, 1999ko ekainaren 7koa, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Negoziazio Mahai Orokorrean Administrazioak izango dituen ordezkariak izendatzeko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Negoziazio Mahai Orokorra da negoziazio kolektiboa aurrera eramateko eta, legeriak funtzionarioei aitortzen dizkien eskumenen arabera, funtzionario publikoen lan-baldintzak zehazteko partaidetza eremua.

Bestalde, irailaren 4ko 228/1990 Dekretuak aldatu zuen urriaren 6ko 304/1987 Dekretuaren IV. kapituluaren ezarritakoarekin bat, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren zerbitzura lanean diharduen lagileriaren ordezkatzeko-organokoak, hauteskunde prozesua eta langileen lan-baldintzak eta partaidetza arautzen dituen Dekretu horren IV. kapituluaren ezarritakoarekin bat, Negoziazio Mahai Orokorra honela osatuko da: batetik, dagokion Administrazio Publikoaren ordezkariak egongo dira, bestetik, Estatuan eta Autonomia Erkidegoan ordezkari gehien dituzten Erakunde Sindikalak, eta, azkenik, langileriaren Ordezkariei

## DISPOSICIONES FINALES

*Primera.*– Desarrollo reglamentario.

Se faculta al/la Consejero/a competente en materia de juventud para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y aplicación del presente Decreto.

*Segunda.*– Entrada en vigor.

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 2 de junio de 1999.

El Lehendakari,  
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Cultura,  
M.ª CARMEN GARMENDIA LASA.

## Otras Disposiciones

### DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

#### Nº-2609

ORDEN de 7 de junio de 1999, de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, por la que se nombran los miembros que formarán parte de la representación de la Administración en la Mesa General de Negociación de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

La Mesa General de Negociación de la Comunidad Autónoma de Euskadi constituye el marco de la negociación colectiva y la participación en la determinación de las condiciones de trabajo de los funcionarios públicos de aquélla en los términos en que legalmente les esté reconocido.

De conformidad con lo dispuesto al efecto en el Capítulo IV del Decreto 304/1987, de 6 de octubre, de Órganos de representación, regulación del proceso electoral, determinación de las condiciones de trabajo y participación del personal al servicio de las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco, modificado por Decreto 228/1990, de 4 de septiembre, en la Mesa General de Negociación estarán presentes los representantes de la Administración Pública correspondiente y las Organizaciones Sindicales más representativas a nivel estatal y de la Comunidad Autónoma, así como los Sindicatos que hayan obtenido el